

## Hiriak berdetzeak diskriminazio soziala areagotzen duela frogatu dute



Atlanta. ARG.: Jami430/CC4.0

Hirietan eremu berdeak sortzean edo zeudenak bere onera ekartzean, ingurua gentrifikatu egiten dela frogatu dute Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan egindako ikerketa batean. Hau da: berdetzeak maila ekonomiko altuko pertsonak erakartzen ditu, etxebizitzaren prezioak igo egiten dira, eta maila ekonomiko apalagoko jendea kanporatu egiten da. Ondorio horretara iritsi dira sei urtez Europako, Kanadako eta AEBko 28 hirirekin bilakaera aztertuta. *Nature Communications* aldizkarian argitaratu dituzte emaitzak.

Ikerketan, egileek gogorarazi dute hiriak berdetzeak onura nabarmenak dakartzala osasunean, kliman eta ekonomian. Alabaina, azterketak agerian jarri du banaketa eta eskuragarritasuna ez direla ekitatiboak. Hain zuzen, 28 hirietatik 17tan, berdetzeak gentrifikazioa ekarri zuen; bereziki, AEBn eta Kanadan, han Europan baino ahulagoak direlako politika sozialak eta etxebizitzaren merkatuaren gaineko kontrola.

Hala, frogatu dute 1990-2000 urteetan hiriak berdetzeko egin ziren lanek harreman zuzena dutela 2010eko hamarkadan gertatu zen gentrifikazioarekin. Eremu berdeak sortzeko edo

berreskuratzeak hiritar zaugarrienak baztertu zituen; batez ere, migratzaileak eta pertsona arrazializatuak. Erlazio hori zuzena da Atlantan, Kopenhagen, Montrealen, Nantesen eta Vancouverren, adibidez.

Beste leku batzuetan, berdetzea hirien berrantolamenduari lotuta joan da, hazkunde ekonomiko helburu zutela. Kasu horietan, beraz, berdetzearen eta gentrifikazioaren arteko erlazioa ez da hain zuzena, beste faktore batzuek ere lagundu baitute gentrifikazioan. Hori gertatu da, esaterako, Bartzelonan, Bostonen, Denverren, Edinburgon, San Frantziskon eta Seattlen.

Eta zenbait hiritan ez dute erlazioirik ikusi; adibidez, Valentzian. Ikertzaileen ustez, kasu horretan, auzoetan parke txikiak egin izana lagungarria izan da gentrifikaziorik ez gertatzeko.

Horrenbestez, ikertzaileek ondorioztatu dute hiriak berdetzea ez dela txarra, alderantziz; baina, eremu berdeak sortzean edo berreskuratzean, ezinbestekoa da ekitateari eta justiziari lehentasuna ematea, ez bada diskriminaziorik eragin nahi. ●